

Kepa Ormazabal Galdos

B maila • 2 saria

Kepa Ormazabal Galdos naiz, 15 urteko gabiriarra. 2006ko uztailaren 7an jaioa. Afizio asko dittut, txirrindularitza, futbola, mendia, bertsolaritza, esku-pelota, juerga (apur bat), baserrian ibiltzea..... baina lehiatzen futbolean eta txirrindu gainean soilik ibili ohi naiz.



EGOERA KASKARRA

Azken urtetan gure bizitzak
izan duen aldakuntza
azken aldian ez zuten egin
horrelako aurkikuntza
birus indartsu eta zikin bat
etor zitzagun honuntza
sekula baino garrantzitsugo
izanda elkarlaguntza

Denon artean saiatu gara
golpean amaitu zedin
oso gogorra egin zaigula
nabarmendu da izerdin
golpe gogorak eman dizkigu
nahiz pasa batzuk ezberdin
azken indarra egin dezagun
goruntz jarraitu ez dedin

Birusa gainen izan ezdunak
ideiarik ere eztu
inork ez baitu eskatzen eta
halere askoi aurkeztu
gainera jakin gabe askotan
pasatzen da eskuz esku
maskarillea ondo ibiliz
ingurukoak babestu

BERTSOAK

Orain bi urte jende dezente
bizi zen eskas antzeko
juerga gutxi egiten zela
horren gazte izateko
baina birusak jarri zigunez
dena aurrekoz atzeko
ondo etorri zaie batzuei
zer zeukaten mirestekoa

Berrogei aldi luze batean
etxetik ezin mugitu
nahiz tarteka lagunen bati
telefonotikan deitu
aspertu latzak hartu nituen
eta pixka bat gogaitu
horrela egon garen guztiok
badegu nahiko meritu

Azkenerako etxetik irten
eta ze arau mordoa
juergarik ez, etxean zintzo
denbora aurrera doa
nagusi jauna ere ixilik
baina badauka gogoa
pake-pakean utzi gazteei
ta nere kontu tragoa